



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 30
Urtea/Año 2015
Martxoa/Marzo

2015/2016 IKASTURTERAKO MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK

GETXOKO MUSIKA ESKOLA BI EGOITZATAN (AREETA ETA ALGORTA) ARITUKO DA DATORREN IKASTURTEAN, MUSIKA IRAKASKUNTZA HOBETU NAHIAN

Urtero bezala, aurten ere garaia heldu zaigu **datorren ikasturterako matrikula epea** zabaltzeko; oraingoan, ordea, badugu berrikuntza bat: 2015/2016 ikasturteetik aurrera, lehenago jakinarazi dizuegun bezalaxe, aurreikusten da Algortan Musika Eskolako egoitza martxan jarriko dela, horrek aukera paregabea emango digu Getxoko bizilagunengana askoz hobeto iritsi ahal izateko.

Horrela, datorren ikasturtean Andrés Isasi Eskola deszentralizatu egingo da; hau da, jarduera, bikoiztu beharrean, desdoblatu egingo da egoitza bietan: Areetan, gaur egungoa, eta Algortan.

Egoitza bakoitzaren eskaintza

Egoitza bakoitzean eskainiko den irakaskuntzak honelako banaketa izango du: eguneroko eskaintza *iraunkorra, eskusiboa eta aldizkakoa*.

Egoitza biek eguneroko eskaintza iraunkorra izango dute eskari handiena duten ikasgaietarako eta espezialitateetarako, horiek dira lengoia musikala, pianoa, gitarra, biolina eta zeharkako txirula, besteak beste. Kontrabaxu, musikoterapia, perkusio eta baxu elektriko klaseak eta tresna-taldeak: bandak eta orkestrak, Algortako egoitza berrian baino ez dira emango, bertan lokal egokiak baitaude talde handiek entsegua egin ahal izateko. Gainontzeko tresnen espezialitateak txandaka Areetan eta Algortan emango dira.

Beraz, ikasgaiak honela banatuko dira:

IRAUNKORRA	<ul style="list-style-type: none"> Lengoia musikala Pianoa Gitarra 	<ul style="list-style-type: none"> Zeharkako txirula Biolina 	Eskaintza egunero Areetan eta Algortan
ESKLUSIBOA	<ul style="list-style-type: none"> Kontrabaxua Perkusioa Musikoterapia 	<ul style="list-style-type: none"> Baxu elektrikoa Tresna taldeak: orkestra keta bandak 	Algortako Musika Eskolan baino ez
ESKLUSIBOA	<ul style="list-style-type: none"> Abesbatzak 		Areetako Musika Eskolan baino ez
ALDIZKAKOA	<ul style="list-style-type: none"> Biola Biolontxelo Klarineta Oboe Fagota Saxofoia Tronpa Tronpeta Tronboia Fanfarriak Kamara-taldeak 	<ul style="list-style-type: none"> Tuba Bonbardino Akordeoa Txistua Pandero Trikitixa Alboka Txalaparta Konboak 	Txandaka Areetan eta Algortan



Matrikula-epeak: MARTXOan aurtengo ikasleak eta MAIATZean ikasle berriak

Martxoaren 9tik 27ra arte egongo da zabalik 2015/16 ikasturterako plaza erreserbatzeko epea **gaur egun Musika Eskolako ikasleak** diren eta matrikula berri nahi dutenentzat. Gure aurreikuspenen arabera, matrikula-epea amaitutakoan, behin-behineko ordutegia apirilaren amaiera aldera izango dugu prest.

Ondoren, **ikasle berrientzat** beste matrikula-epe bat zabalduko da **maiatzaren 15etik 31ra arte**.

Matrikula egiteko, gutun honekin batera duzuen inprimakia bete beharko duzue eta, adierazitako epeen barruan, entregatu Andrés Isasi Musika Eskolako idazkaritzan. Era berean, web orriaren bidez ere egin dezakezue matrikula honako helbide honetan: <http://www.getxo.net/es/musika-eskola/la-escuela/localizacion-musika-eskola>

Irizpideak ikasleak egoitzetan sailkatzeko

Ikasleak bi egoitzetan zelan banatu edo sailkatu erabakitzeko irizpideak honako hauek dira:

Lehenengoa izango da zenbait ikasgai irakasteko ezaugarriagatik –kontrabaxua, musikoterapia, perkusioa, baxu elektrikoa eta tresna-talde batzuk- Algortako eskolan baino ez dira emango.

Kontuan hartuko den beste irizpide bat, ahal den neurrian, izango da ikaslearen bizitokitik hurbilen dagoen eskola egokitzea. Horrela, 48930 posta kodeari dagozkion ikasleak Areetako egoitzean bideratzen saiatuko gara (egunero edota aldizkako ikasgaiak eskaintzen diren kasuetan); eta 48991, 48992 eta 48993 posta kodeei dagozkien ikasleak Algortako egoitzean joango lirakeke.

Era berean, jarraitu nahiko genukeen beste irizpide bat izango da ikasleek Lengoaia Musikala ikasgaia eskola jakin batean hasten badituzte, eskola horretan bertan amaitzea.

Azkenik, tresna eta lengoaia musikala ikasten dituzten eta 14 urte baino gutxiago duten ikasleek bizitokitik hurbilen duten egoitzean ikas dezaten nahi dugu, horretarako aukera egonez gero.



Bizi proiektua

Getxoko Musika Eskolak datorren ikasturterako aurkeztu nahi duen beste berrikuntza bat "Bizi proiektua" da. Bizi proiektuak euskara eta gaztelania hizkuntzen elkarBIZItza bilatu nahi du, BIZI ikurrarekin agertzen diren ikasgaiak, tartean lengoaia musikaleko 4-5 urteko ikasleenak, euskaraz izango dira nagusiki eta hizkuntza menperatzen ez duten umeei arreta pertsonalizatua eskainiko zaie. Hizkuntzen elkarBIZItza bilatzen dugu.

INFORMAZIOA

Edozein zalantza argitzeko: etorri Andrés Isasi Musika Eskolara (Mesedeetako kalea 6, Areetan), edo deitu telefonoz (944.646.011) edo bidali korreo elektronikoa (aisasi@getxo.net). Era berean, honen guztiaren gaineko informazioa hemen duzue: www.getxo.net